| 7. artikulua.<br>Ibilgailuak galtzadan edo galtzada zati bat okupatuz aparkatzea arau-hauste arintzat hartuko da.<br>Ordenantza honen eraginetarako, ibilgailuak zirkulatzeko erabilitako bide zatia izango da galtzada, karril bakoitzak ibilgailu-lerro bat zirkulatzeko zabalera nahikoa izan behar duelarik. Ibilgailuen artean, kamioiak ere sartuko dira. | Artículo 7.<br>Que los vehículos aparquen sobre la calzada u ocupen parte de ella será falta leve.<br>A efectos de esta ordenanza, se considerará calzada la zona de la vía pública utilizada por los vehículos para circular, teniendo en cuenta que cada carril tendrá que tener una anchura suficiente para permitir la circulación de una línea de vehículos. Los camiones también entran en el rango de vehículos |
| 8. artikulua.<br>Debekatua dago leku berean 30 egun naturalez jarraian ibilgailua aparkatzea. Debeku hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.<br>9. artikulua.<br>Debekatua dago udalerriko edozein kaletan 3. Kategoriako ibilgailuak, ibilgailu bereziak, nekazaritza-erabilerakoak edota obra publikoetakoak, atoidunak eta atoiak aparkatzea, baimendutako zama-lanak egiteko izan ezik. Debeku hau ez | Artículo 8.<br>Está prohibido aparcar el vehículo durante 30 días consecutivos en el mismo lugar. No cumplir esta norma se considerará como falta leve.<br>Artículo 9.<br>Está prohibido aparcar en cualquier vía del municipio para vehículos de tercera categoría, transportes especiales, vehículos agrícolas o de obras públicas, vehículos con remolque y remolques salvo en los casos que cuenten con autorización expresa. |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

| | |
|---|---|
| betetzea arau-hauste arintzat hartuko da. | Incumplir esta norma se considera falta leve. |
| 10. artikulua.<br>Zama-lanetarako ohiko ordutegia astelehenetik larunbatera 09:00etatik 14:00etara izango da, jaiegunak izan ezik. | Artículo 10.<br>El horario habitual de carga y descarga de lunes a sábado, excepto festivos, es de 09:00h a 14:00h. |
| 11. artikulua.<br>Biztanledun eraikinaren oinezko sarbidea oztopatuz ibilgailuak aparkatzea arau-hauste larritzat hartuko da.<br>12. artikulua. Baimendutako bira ematea eragotzi edota bira hori egiteko besteei maniobrak egitera behartze duen aparkamendua arau-hauste larritzat hartuko da.<br><br>13. artikulua.<br>Horretarako gune zehatzik ez duten bide publikoetan, hiru metrotik gorako zabalera duten espaloi eta ibilbideetan aparkatu ahal izango dute motozikletek, beti ere espaloiarekin paraleloan eta zintarritik 50 zentimetrotara. | Artículo 11.<br>El aparcar obstaculizando la entrada de personas a inmuebles habitados se considerará como falta grave.<br>Artículo 12.<br>Aparcar impidiendo el giro permitido u obligar a realizar maniobras para poder efectuar giros permitidos se considerará falta grave.<br><br>Artículo 13.<br>En las vías públicas que no cuenten con zonas específicas destinadas a ello, y en las aceras y pasos de ancho superior a tres metros, se permite aparcar motocicletas, siempre en paralelo a la acera y a 50 centímetros del bordillo. |
| III. KAPITULUA<br>ZIRKULATZEA<br>14. artikulua.<br>Ibilgailuak eta motozikletak ibiltoki, irlatxo, espaloi, eskailera, gune berde edota oinezko guneetatik zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da. | III.CAPÍTULO<br>CIRCULAR<br>Artículo 14.<br>Que los vehículos y motocicletas circulen por isletas, aceras, escaleras, zonas verdes o zonas peatonales se considerará falta grave. |
| 15. artikulua.<br>Agintaritza agenteak egindako seinaleak edota emandako aginduak ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da.<br><br>16. artikulua.<br>Oinezkoren bat oinezkoen pasabidean doanean, ibilgailua pasabide horretara sartzea arau-hauste larritzat hartuko da. | Artículo 15.<br>No obedecer a las señales u órdenes dadas por el agente de autoridad se considerará infracción grave.<br><br>Artículo 16.<br>Si cuando algún peatón circula por una vía peatonal algún vehículo entra en la mencionada vía, se considerará falta grave. |
| 17. artikulua.<br>Ibilgailuak debekatutako norabidean | Artículo 17.<br>Que los vehículos circulen en |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

| | |
|---|---|
| zirkulatzea arau hauste oso larritzat hartuko da.<br>18. artikulua.<br>Ibilgailuak debekatutako biraketa egitea arau-hauste larritzat hartuko da.<br><br>19.artikulua.<br>«Utzi pasatzen» seinalea ez errespetatzea arau-hauste larritzat hartuko da. | dirección contraria se considerará como falta muy grave.<br><br>Artículo 18.<br>Que los vehículos hagan giros prohibidos se considerará falta grave.<br><br>Artículo 19.<br>No respetar la señal de «Ceda el paso» se considerará falta grave |
| 20. artikulua.<br>Ibilgailu batek lehentasuna duen beste ibilgailu bati pasatzen ez lagatzea arau-hauste larritzat hartuko da.<br>21. artikulua. «Stop» seinalea ez errespetatzea, arau-hauste larritzat hartuko da. | Artículo 20.<br>Se considerará como falta leve que un vehículo no deja pasar a otro que tiene preferencia de paso.<br>Artículo 21.<br>No respetar la señal de «Stop» se considerará como falta grave. |
| 22. artikulua.<br>Ibilgailuentzat debekatutako zirkulazioa seinaleztatua dagoen guneetatik zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da.<br>23. artikulua.<br>Agintaritza agentearen ustez ibilgailuak ausarkeriaz gidatzea arau-hauste oso larritzat hartuko da. Agintaritza agentearen ustez ibilgailuak zabarkeriaz gidatzea arau-hauste larritzat hartuko da.<br>24. artikulua.<br>3. kategoriako edota neurri berezietako ibilgailu batek udalerriko kaleetatik zehar zirkulatu behar duenean, behar den aurrerapenarekin abisatu beharko zaio Udalari. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da. | Artículo 22.<br>Circular por zonas en las que está señalizada la prohibición de circular, se considerará como falta grave.<br>Artículo 23.<br>Si el agente de la autoridad considera que la conducción del vehículo es temeraria, la infracción será muy grave. Si el agente de la autoridad considera que se está circulando de forma negligente, la infracción será grave.<br>Artículo 24.<br>Si algún vehículo de tercera categoría ha de circular por las calles del municipio, deberá de avisarse al Ayuntamiento con la suficiente antelación. Incumplir este artículo se considerará como falta leve. |
| 25. artikulua.<br>Ziklomotore eta motozikleten gidariek eta hauen lagunek dagokien babes-kaskoa eraman beharko dute behar bezala jantzita. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da.<br><br>26. artikulua.<br>Espaloi, anden eta pasealekuetatik zirkulatu ahal izango da patin, | Artículo 25.<br>Tanto las personas conductoras de ciclomotores y motocicletas, como sus acompañantes, deberán de llevar el casco de protección debidamente sujeto. No cumplir este artículo supone una falta grave.<br><br>Artículo 26.<br>Se podrá circular en patín, monopatín, bicicleta, triciclo o similar por las |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

+

Idiazabalgo Udala

| | |
|---|---|
| monopatin, patinetearekin, bizikleta, triziklo eta antzekoekin, beti ere oinezkoen abiadurara egokituta.<br> Bizikletek atoi bat edo erdi-atoi bat eraman ahal izango dute eta atoian pertsonak eraman ahal izango dira. Gauza bera aplikatuko da hiriko bideetan zirkulatzen duten motor-bizikleta, hiru gurpildun ibilgailu, ziklomotoreentzako ere.<br>Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da. | aceras y paseos, siempre que adapten su velocidad a la de los y las peatones.<br> Las bicicletas podrán llevar un remolque o semi-remolque y podrán llevar personas en el remolque. Se aplicará el mismo criterio con las motocicletas, triciclos, bicicletas y ciclomotores que circulen por las vías urbanas.<br><br>No cumplir este apartado será falta leve. |
| IV. KAPITULUA<br>OINEZKOAK<br>27. artikulua.<br>Oinezkoek ezingo dute zirkulazioa oztopatzen duten talderik osatu. Artikulu honetan ezarritakoa ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da. | IV. CAPÍTULO<br>PEATONES<br>Artículo 27.<br> Los y las peatones no podrán formar grupos que obstaculicen la circulación. No cumplir esta regla supone una falta leve |
| 28. artikulua.<br> Oinezkoek ezingo dute gainontzeko oinezkoak gogai ditzaketen lasterketa edota jokoak egin. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.<br><br>29. artikulua.<br>Galtzada gurutzatu behar duen oinezkoak horretarako markatutako oinezkoen pasagunetik pasatuko dira. Seinaleztatuko pasagunerik egongo ez balitz, ibilbide motzenetik pasatuko dira eta galtzadan ahalik eta denbora gutxien egongo dira. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da. | Artículo 28.<br>Los y las peatones no podrán llevar a cabo carreras o juegos que molesten al resto de personas viandantes. No cumplir esta regla supone una falta leve.<br><br>Artículo 29.<br>Las personas que han de cruzar la calzada, lo harán por las zonas marcadas para tal fin. Si no existieran pasos marcados, cruzarán por la parte más corta, permaneciendo en la calzada el menor tiempo posible. El incumplimiento de esta norma se considera falta leve. |
| V. KAPITULUA<br>Bikuña eta Jose Galo Zudaire kaleak | V. CAPÍTULO<br>Calles Bikuña y Jose Galo Zudaire |
| 30. artikulua.<br>Bereziki atondutako zirkulazio-guneak dira. Gune honetan oinezkoek lehentasuna dute ibilgailuen aurrean. Honako arau hauek ezartzen dira:<br>— Ibilgailuen gehieneko abiadura 20 kilometro ordukoa da.<br>— Gidariek lehentasuna eman behar | Artículo 30.<br>Son zonas especiales de circulación. En toda la zona las personas viandantes tienen prioridad ante los vehículos. Se establecen en la misma, las siguientes normas:<br>— La velocidad máxima a la que pueden circular los vehículos es de 20 |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

| | |
|---|---|
| diote oinezkoei.<br>— Geratzeko tokietan baino ezin dira geratu ibilgailuak.<br>— Oinezkoek zirkulatzeko eremu osoa erabil dezakete.<br>— Gune honetan jolas egitea eta kirola egitea baimenduta dago.<br>— Oinezkoek ezin diote nahita trabarik egin ibilgailuei.<br><br>Artikulu honetako atalak ez betetzea falta arintzat hartuko da. | km/h.<br>— Las personas conductoras están obligadas a dar preferencia a las personas viandantes.<br>— Los vehículos no pueden estacionar más que en las zonas destinadas a tal fin.<br>— Las personas viandantes pueden utilizar toda la zona para moverse.<br>— En esta zona está permitido jugar y practicar deporte.<br>— Las personas viandantes no pueden obstaculizar a los vehículos de manera intencionada.<br><br>No respetar todas las normas de este artículo supone falta leve. |
| VI. KAPITULUA<br>TEKNIKA ETA ADMINISTRATIBOAK ETA INGURUMENA<br>31. artikulua.<br>Behar den argirik gabe zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da.<br><br>32. artikulua.<br>Gidatzeko baimen edota zirkulazio-baimenik gabe zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da. Gidariak ondorengo 24 orduetan agiri horiek badituela egiaztatzen badu, arau-haustea bertan behera geratuko da.<br><br>33. artikulua.<br>Baimendutako baino bidaiari gehiagorekin zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da. Dena den, larrialdi-kasuan ez da arau-haustetzat hartuko.<br><br>34. artikulua.<br>Soinu-seinaleen bidegabeko erabilera arau-hauste larritzat hartuko da. | VI. CAPÍTULO<br>REFERENTE A NORMAS TÉCNICO-ADMINISTRATIVAS Y MEDIOAMBIENTALES<br>Artículo 31.<br>Circular sin luces se considera infracción grave.<br><br>Artículo 32.<br>Conducir sin carnet o sin el permiso de circulación se considerará como falta grave. Si en las 24 horas siguientes a la infracción la persona conductora acredita la posesión de tales documentos, la infracción será anulada.<br><br>Artículo 33.<br>Circular con más personas viajeras de las permitidas se considerará como falta grave. En caso de emergencia, no se considerará como falta.<br><br>Artículo 34.<br>El abuso de uso de las señales sonoras se considerará como falta grave. |
| 35. artikulua.<br>Ke edo zarata gehiegi ateratzea arau-hauste larritzat hartuko da. | Artículo 35.<br>El exceso de humo o de ruido se considera falta grave. |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

| | |
|---|---|
| 36. artikulua.<br>Debekatua dago bide publikoetan ibilgailuak garbitzea, koipeztatzea edo konpontzea. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.<br><br>37. artikulua.<br>Espaloi edo galtzada gainean zamak edo merkantziak uztea, lekualdatzea, edo arrastaka eramatea arau-hauste arintzat hartuko da.<br><br>38. artikulua.<br>Trafiko-seinaleak kaltetzea arau-hauste larritzat hartuko da. Isunaz gain, eragindako kalteen konponketa ere ordaindu beharko da.<br><br>39. artikulua.<br>Debekatua dago seinaleen ikuspen normala itsutu, eragotzi edo mugatzen duten toldo, kartel, iragarki edo bestelako instalaziorik jartzea. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da. | Artículo 36.<br>Se prohíbe lavar, aceitar o reparar los vehículos en la vía pública.<br>No respetar este artículo se considerará como falta leve.<br><br>Artículo 37.<br>El dejar mercancías u otro tipo de cargas sobre la acera o sobre la calzada, trasladarlas o arrastrarlas se considerará como falta leve.<br><br>Artículo 38.<br>Estropear o dañar las señales de tráfico se considerará como falta grave. En dicho caso, además de la debida multa, la reparación de los daños correrá a cuenta de la persona infractora.<br><br>Artículo 39.<br>Está prohibido colocar toldos, carteles, paneles publicitarios y otros elementos que eviten, obstaculicen o limiten la visión normal de las señales de tráfico. No cumplir con esta norma se considerará falta grave. |
| VII.KAPITULUA<br>PROZEDURAKO BESTE ARAUAK<br>40. artikulua.<br>Agintaritzaren agenteei desmen egitea edo errespetu-falta agertzea arau-hauste larritzat hartuko da, eta arau-hauste oso larritzat hartuko da desmen egiten jarraitzen bada.<br><br>41. artikulua.<br>Zirkulazio Kodean edo Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Errege Lege Dekretuan jasotako beste edozein aginduren arau-hausteа aipatutako xedapenetan emandako sailkapenaren arabera zigortuko da, Araudi honetan onartutako kantitateak aplikatuz. | VII.CAPÍTULO<br>NORMAS REFERENTES AL PROCEDIMIENTO<br>Artículo 40.<br>Desobedecer a las indicaciones de la autoridad y mostrar falta de respeto hacia ella, se considerará falta grave. Una vez recogida la advertencia, si se persiste en hacer caso de sus indicaciones, se considerará falta muy grave.<br><br>Artículo 41.<br>Toda infracción de cualquier norma recogida bien en el Código de Circulación o en el Real Decreto Correspondiente a la Circulación de Vehículos de motor y la Seguridad Vial, será castigada de acuerdo a la clasificación de las normas referidas, y se aplicarán las cantidades aprobadas en esta Normativa. |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

| | |
|---|---|
| 42. artikulua.<br>Jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epearen barruan isuna ordaintzeak %50eko beherapena ekarriko du.<br><br>43. artikulua.<br>Ondoren aipatutako eragozpenen bat eragiten duten ibilgailuak, gruaz kendu ahal izango dira udal-biltegira: Udalerriko kale batetik ibilgailuen zirkulazioa eragozten bada; espaloi edo zebra-markak dituen pasagune batetik oinezkoen pasoa eragozten bada; behar bezala seinaleztatuta dagoen baimendutako ibia duten garajeetako ibilgailuen sarrera edo irteera oztopatzen bada; eta desgaitasuna duten pertsonentzako, garraio publikoa gelditzeko, zamalanak egiteko edo zaborra biltzeko erreserbatutako guneak okupatzen badira. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da. Bide publikotik erretiratu eta udal-biltegian utzitako ibilgailuen jabeek, isunaz gain, horiek erretiratzeak sortutako gastu guztiak ordaindu beharko dituzte eraman ahal izateko.<br><br>44. artikulua.<br>Bide publikoan ibilgailuen edota oinezkoen zirkulazio normala eragozten duten oztopoak jartzeak aurretiko udal baimena izan beharko du, eta gauez behar bezala seinaleztatuta eta argiztatuta geratu beharko dira. | Artículo 42.<br>Una vez recibida la notificación, si se paga en el plazo de 15 días supone un descuento del 50% de la multa.<br><br>Artículo 43.<br>Los vehículos que provoquen alguna de las siguientes situaciones, podrán ser retirados al Depósito Municipal: impedir la circulación de vehículos por alguna calle del municipio; impedir el paso de peatones por las aceras y por los pasos de cebra; impedir la entrada o salida de vehículos a garajes debidamente señalados; ocupar plazas reservadas para personas con discapacidad, paradas de autobús, zonas reservadas para carga y descarga o para la recogida de residuos. No cumplir esta norma se considera falta grave. Además de pagar la correspondiente multa, las personas propietarias de los vehículos trasladados al depósito municipal se harán cargo de todos los gastos que supongan la retirada de los vehículos.<br><br>Artículo 44.<br>La colocación de cualquier obstáculo que impida la circulación normal tanto de vehículos como de peatones por las vías públicas, deberá contar con antelación con la correspondiente autorización municipal, y de noche ha de estar debidamente señalizada e iluminada. |
| 45. artikulua.<br>Agintaritza agenteak segurtasun eta ordena publikoarengatik edota zirkulazioaren zalutasuna bermatzeko, eragin horretarako behar diren guneetan trafikoaren antolamendua alda dezake aldi baterako, | Artículo 45.<br>Para garantizar la agilidad de la circulación, o por razones de seguridad y de orden público, el agente de la autoridad provisionalmente podrá organizar el tráfico de otro modo en las zonas en las que para tales fines sea |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

+

Idiazabalgo Udala

| | |
|---|---|
| beharrezkoak diren seinaleak jarriz edo erretiratuz.<br><br>46. artikulua.<br>Udalak, aparkaldi mugatuaren guneak arau ditzake seinaleztapen egokia erabiliz eta gune bakoitzaren premia berezietara egokituz. | necesario, y para ello podrá retirar o colocar las señales que considere convenientes.<br><br>Artículo 46.<br>El Ayuntamiento podrá establecer zonas de aparcamiento limitado por medio de señales adecuadas, que se adapten a las necesidades existentes en la zona. |
| VIII. KAPITULUA<br>ABANDONATUTAKO IBILGAILUAK | VIII. CAPÍTULO<br>VEHÍCULOS ABANDONADOS |
| 47. artikulua.<br><br>Abandonatutako ibilgailutzat hartuko da leku berean hilabete baino gehiago aparkatuta daramanean, baldin eta kalteak baditu eta horrek eragozten badu ibilgailua bere kabuz mugitzea; baita ere matrikula-plakarik ez duenean.<br>Udalak agindu dezake ibilgailuak abandonatuta eramatea ibilgailuak tratatzeko zentro baimendura, urriaren 30eko 6/2015 Dekretuan ezarritako prozedura aplikatuz.<br>Arau-hauste hau arintzat hartuko da. | Artículo 47.<br><br>Se considerará vehículo abandonado, cuando lleve más de un mes aparcado en el mismo sitio, y tenga daños que impidan que sea movido por sus propios medios o carezca de placa de matrícula.<br>El Ayuntamiento puede dar orden para llevar los vehículos abandonados al centro autorizado de tratamiento de vehículos aplicándose el procedimiento establecido en el Decreto 6/2015 de 30 de octubre.<br>Esta infracción tendrá la consideración de leve. |
| IX. KAPITULUA ZIGORTZE-JARDUNBIDEA<br>48. artikulua.<br>Trafiko eta ibilgailuen zirkulazio-gaietan zigorrak jartzeko prozedura administratiboa indarrean dagoen legediak ezarritakoa izango da.<br>Gidatzeko baimen eta lizentziei, ibilgailuen azterketa teknikoari, zirkulazio-baimenari eta derrigorrezko aseguruaren polizari dagozkion arau-hausteak Gipuzkoako Trafikoko Probintziako Buruzagitzara bidaliko dira, arau-hauste horiek zigortzeko | IX. CAPÍTULO<br>PROCEDIMIENTRO SANCIONADOR<br>Artículo 48.<br>El procedimiento administrativo para la imposición de sanciones en los temas referentes a Tráfico y Vehículos, es el establecido por la ley. Las infracciones referentes a temas de Permisos de Conducción y Licencias, Inspección Técnica de Vehículos, Permisos de Circulación, y Pólizas de Seguros Obligatorias, se enviarán a la Jefatura Provincial de Tráfico, al tratarse del órgano competente para |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

| | |
|---|---|
| organo eskuduna delako.<br><br>49. artikulua.<br>Arau-hauste arinak 40 euroko isunarekin zigortuko dira, arau-hauste larriak 100 euroko isunarekin eta arau-hauste oso larriak 200 euroko isunarekin. | castigar infracciones de este tipo.<br><br>Artículo 49.<br>Las infracciones leves se sancionarán con 40 euros, las graves con 100 euros, y las muy graves con 200 euros. |
| | |

Ioritz Imazek eta Iñaki Arriaranek galdetzen dute ea ordenantza honen onarpena tramitatzerakoan herritarrei ez al zaien kontsulta egiten. Idazkariak erantzuten du ezetz.

**Puntua bozkan jartzen da eta AHO BATEZ ONARTZEN da:**

- **LEHENENGOA.** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 30 egun baliodunetan interesdunek alegazioak egin ditzaten.
- **BIGARRENA.** Alegaziorik egon ezean, erabakia behin betikotzat joko da.

**6. 2022. Urterako udal langileen soldata %2 igotzea onartzea, hala badagokio.**

2021eko abenduaren 29an, Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea argitaratu zen BOEn. Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du: “(…) Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2021ekoen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.”

Puntua bozkatzen dute eta **AHO BATEZ ONARTZEN** da 2022. urterako udal langileen soldata %2 igotzea.

**7. Idiazabalgo Plangintza Orokorreko dokumentuari behin-behineko onarpena ematea, hala badagokio.**

Idiazabalgo Udaleko Plan Orokorra 2021eko azaroaren 4ko Osoko Bilkuran behin-behinekoz onartu zen, eta dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa sailera bidali zen Plana behin betikoz onartzeko.



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 •
udala@idiazabal.eus

+

Idiazabalgo
Udala

2022ko urtarrilaren 7an Gipuzkoako Foru Alundidko Lurral de Antolaketa zuzendaritzak jakinarazi zuen behin betiko onarpenaren epea etetzen zuela arrazoi honengatik:

- 9/2014 Legeak, maiatzaren 9koak, Telekomunikazioei buruzkoak, 35.2 artikuluan xedatutako txostena ez da eskatu.

Idiazabalgo Udalak 2018ko ekainaren 16an Telekomunikazioaei buruzko txostena eskatu zuen.

Zuzendaritza orokor horrek kontrako txostena igorri zuen.

2021eko abenduaren 27an Idiazabalgo Udalak dokumentua berriro bidali zion Estatuko Transformazio Digitala eta Ekonomiaren Ministeritzako Telekomunikazio zuzendaritzari, eta 2022ko urtarrilaren 18an aldeko txostena jaso zen.

Aldaketa hori Plan Orokorrean integratu behar denez, hau da, dokumentua aldatu delako Osoko Bilkurak onartu behar du.

Puntua bozkan jartzen dute eta **AHO BATEZ** honako hau **ONARTZEN** da:

**LEHENENGOA**: Idiazabalgo Plangintza Orokorreko dokumentua behin-behinekoz onartzea.

**BIGARRENA**. Plangintza Orokorrari dagokion dokumentua Gipuzkoako Foru Alundiko Lurralde Antolaketako zuzendaritzara bidaltzea, horrek behin betiko onarpena eman diezaion.

**8. Galdera eskaerak.**

Ez dago

Behin puntu honetara iritsita, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 18:55an, eta akta hau egin dut bertan erabakitakoa jaso dadin, eta beharrezko efektuak izan ditzan.

Idiazabalen, 2022ko urtarrilaren 27an.

**O.I**

**ALKATEAK**
**Iñaki Alberdi Iparragirre**

**IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK**
**Leire Ucin Soraluce**



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus